

ELKARRI MOKOKA: Mikel Hernandorena eta Andrea Etxarri **Nor da nor?:** Argazki zaharrak

ELKARRIZKETA NAGUSIA: Kemen Aldabe **KUXKUXEAN:** Uztaileko eta abuztuko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Guk erabaki dugu!



Maddi Urrea (Irurtzun)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Ekainaren 18an Mendialdeko Gure Esku Dagok deituta eskualdean herri-galdeketak egin ziren. %36,56ko parte-hartzea lortu zuen elkarteak. Adin, alor eta ideologia ezberdineta-ko herritarrek bozkatu zuten.

Ikasturte bukaerako festa

Ekainaren 20an Ibarberri eskolako Ikasturte amaiera festa ospatu genuen. Ekintza desberdinak antolatu ziren eta bertan guraso, irakasle eta ikasleek parte hartu eta gozatzeko aukera izan zuten.

Goizean zehar, Haur Hezkuntza eta 1. ziklokoek tailerrak izan zituzten: aurpegi margoketak, eskulanak... Primeran ibili ziren guraso eta DBHko ikasleen laguntzaz mahaiez mahai jarduera desberdinak probatzen. 2. ziklokoek, berriz, herri kirolak izan zituzten eta taldeka parte hartu zuten. 3. zikloko ikasleak, igerilekura joan ziren eta DBHko ikasle batzuk txikienekin tailerretan egon ziren arren, beste batzuek futbol txapelketan parte hartu zuten.

Ohiturari jarraituz, hamaiketakoaren ondoren, DBHko 2. mailako ikasleen agurraren txanda iritsi zen. Gure eskolan 11 urte pasa ondoren, merezitako omenaldi txiki bat egin genuen. Hau dela eta, DBH 1. mailako ikasleek aureskua dantzatu zieten eta Irakasleok, berriz, diplomak banatu genizkien.

Festari amaiera eman baino lehen, DBH 2ko ikasleek sorpresatxo bat ere eskaini ziguten eskolako irakasle, ikasle eta gurasoei.

Mila esker eta zorterik hobereana opa dizuegu zuen etapa berri honetan. Ez ahaztu gutaz!



Zaharrenek txikienei aurpegia margotu zieten.



Mota guztietako ekintzak eta jolasak egin zituzten.



DBHko 2. mailako ikasleek datorren ikasturtean ez dute Ibarberrin ikasten jarraituko eta omenaldia egin zieten.

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu

09> Zabal: Oskar Estanga



10 > Kemen Aldabe

Kemen Aldabe lekunberriarrak urte borobila izan du aurtengoa. ETBko "El conquistador del fin del mundo" saioan parte hartu du eta erremontean profesioletan debutatu berri du.

13> Kuxkuxean: Uztaileko eta abuztuko zorion agurrak.



22 > Xabier Zamargilea

Xabier Zamargileak "Beharbada bai, beharbada ez" diskoa kaleratu du Zamarra eta Aterkia taldearekin. Berak sortutako abestiak izan arren, ezinbestekoa zaio osatu duten talde proiektuaren babesak.

24> Erreportajetxoak: Betelu eta Mugiroko Sanpedroak.



26 > EHME

633 korrikalarik parte hartu dute Euskal Herria Mendi Erronkako 5. lasterketan. Alvaro Ramos eta Irene Guembe izan ziren txapeldunak. Eskualdeko hamar korrikalarik lortu zuten helmugaratzea.

29> Oreka osasuntsua: Nere Sotil.

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Lekunberri-Plazaolako bide berdea: Arriskua pertsonentzat eta ingurumenarentzat

Urte askotan, Lekunberriko etxeko hondakinak Plazaolako bide berdearen ondoan dagoen zabortegi batean bota izan dira, inolako kontrolik gabe. Ondoren, zabortegiaren gainean, atsedenerako gune bat egin zen jendearen gozamenerako.

Pilatutako zaborren artean, badira hondakin arriskutsuak: pilak eta argi fluoreszenteak (merkurioa, beruna, zinka etab. dutenak), ibilgailuen olio eta bateriak...

Zabortegia ez dago behar bezala babesturik. Beraz, euria egiten duenean, kutsatutako isuriak errekarra eta lurpeko uretara iristen dira. 2013ko urtarrilean zabortegia hondoratu egin zen eta kutsadura larriki zabaldu zen: plastikoak eta hondakinak noranahi hedatu ziren errekan barrena.

Arazoa konpontzeko, erretena "garbitu" egin zen (hondeamakin baten laguntzaz), material osoa zabortegiaren gainean pilatuz: Plazaolako atsedenerako gunean, hain zuzen ere.

KALAXKA elkartetik kezka handiz ikusten dugu lau urte geroagoko egoera. Hondakinek lehengo lekuan diraute, eta erreka goratzen denean, barreiatu egiten dira, plastikoak nonahi agertzen direlarik.

Lekunberriko ordezkariekin bildu ondoren, hainbat salaketa egin genituen bai Nafarroako Gobernuaren Ingurumen sailean, bai Ebroko Ur Konfederazioan. Duela gutxi jakin izan dugu Ebroko Ur Konfederazioak isuna jarri diola Lekunberriko Udalari eta zera eskatu diola: "lehenbailehen har ditzala neurriak, antzeman diren arazoak konpontzeko".

Bide batez, esan beharra dago kezkgarria dela oso Nafarroako Gobernuak erakutsitako arduragabekeria, ezikusiarrena egin baitu une oro. Horregatik, gure elkarteak Nafarroako Arartekora jo du laguntza eske.

Bukatzeko, KALAXKA elkarteak beste behin eskatu egiten die Lekunberriko Udalari eta Nafarroako Gobernuari ahalik eta azkarraren har ditzatela neurriak gunea berritzeko, eta lur kutsatuak garbitu ditzatela behingoz, arriskutsuak baitira bai atsedengunean dabilen jendearen osasunarentzat baita eragindako ekosistemarentzat ere.

KALAXKA elkarteak

Nerea gaztetxea

Orain dela egun gutxi, Iruñeko Yamaguchi parkean barna nenbilela ikusi zintudan lehenengo aldiz, nire bizitza osoan. Txikitxo zinen. Hogeitaka urtekoa, pentsatzen dut. Bi makuluekin zenbiltzan, burua aurrerantz botata eta oinak atzetik, erdi arrastaka, modu astunean zihoazela. Oso astiro eta nekez mugitzen zinen; zure ibilerak ia-ia dortoka batena gogorarazi zidan. Neronek bizpahiru aldiz begiratu nizun bestela bezala, lotsati, eta zerorrek niri beste hainbestetan, baina disimulurik gabe, naturaltasunez eta alai.

Horrela bukatu zen goizeko lehen elkar ikuste hura. Baina, egun hartan bertan, arratsaldea aurreratu samarra zihoala, hara non, berriro ere goizeko leku bertsuan zindoazen oinez, modu berean. Guk, poliki-poliki aurreratu zintugun eta zerorrek hainbat begirada atsegin eta xalo egin zenizkigun. Eta halaxe aldendu ginen etxe aldera, zure ezagutza eta izaera bitxia gogoan neuzkala.

Baina, biharamunean, arratsaldean eta ordu bertsuan, toki berean paseoa genbiltzala, bat-batean banku batean esertzea erabaki genuen, eta orduan ere, hantxe ikusi zintugun oinez, astiro-astiro, zerorren makuluekin, berriz ere burua aurrerantz eta oinak atzetik jarraika arrastaka, astun, baina alai eta pozik. Bide ondoan, plastikoren bat ikusten zenuenean, bidexkatik desbideratu, atera eta plastikoetaraino hurbiltzen zinen, egonarri handiz, nekez makurtu eta geroxeago paperontzi batean sartzeko.

Minutu batzuen buruan, gureganaino iritsi eta oso adeitsu agurtu gintuzun. Nerea zenuela izena esan zenigun. Euskaraz ez zenekien. Adina galdetuta, urtebete zenuela esan zenigun. Argi dago, Nerea, elbarritasun fisiko batzuk edukitzeaz gain, buruko ez-gaitasunen bat ere bazenuela, baina zure aurpegia alai, garbi, pozik eta zorintsua agertzen zen.

Geroxeago kontaktu zenigun, handik ahateak dauden urmaelerraino joaten zarela, hegaztiak ikustera, eta handik, poliki-poliki, astiro-astiro, oso mantso, zerorren makuluekin, etxeraino. Eta hori egunero egiten omen duzu, edo oso sarritan behintzat bai, zerorren aurpegirik goxoen eta atseginena erakutsiz.

Halaxe, han utzi zintugun, Nerea, zure ibilaldi lasaian, eta orduan konturatu nintzen pertsona batzuk zeinen gutxiarekin konformatzen zireten, zeinen gutxiarekin zireten zoriotsu-edo, eta zeinen erraz erakusten eta oparitzen dituzuen irribarreak, eta beste batzuk, ordea, nahiz eta askoz ere gehiago eduki, halarik ere, ez gara konforma errazak, ez oso zoriotsuak eta ezta oso alaiak ere.

Ai!, zenbat ikasi beharko genukeen zuengandik, Nerea, atsegina!

Xanti Begiristain, Auritz

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net



FISIOTERAPIA

Andoni Ayerdi Olascoaga

609 536 002 · 948 604 789

Iturrilat kalea 7, 31870 Lekunberri
andoniaofisioterapia@gmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

ZER EGIN 15.000 EUROREKIN?

Lekunberriko Udalak parte-hartze prozesu bat abian jarri du, 15.000 euro zertan erabili herritarrek erabaki dezaten.

NOLA EGIN:

- Proposamena aurkezteko inprimakia Lekunberriko udaletxean eskatu edo udaleko webgunean eskuratu behar da.
- Landutako proposamena aurkeztu behar da (zer egin, nola egin, gutxi gorabeherako aurrekontu bat etab.).
- Ezarritako baldintzak betetzen dituzten proposamenak soilik onartuko dira.
- Balorazio taldeak emandako puntuen eta herri bozketan jasotako bozka kopuruaren arabera zerrendatuko dira, puntu gehienetik gutxienera.

EGUTEGIA:

- Uztailak 21: Proposamenak aurkezteko azken eguna.
 - Abuztuak 25: Proposamen guztiak aztertu eta baloratu (baldintzak betetzen dituzten edo ez).
 - Irailak 4: Proposamenak aurkezteko bilera 20:00etan.
 - Irailak 4-8: Proiektu guztiak udaletxean aurkezteko dira eta alde zuzeneko bozka emanen da.
 - Irailak 8: Proiektuak bozkatzeko eguna. (10:00etatik 18:00etara udaletxean).
- Ondoren, 20:00etan, proiektu irabazlea jakinaraziko da.

Animatu eta parte hartu!

Joandakoak Gogoan

“Zuhaitz bezala lurrian, kantuak bezala haizean...”

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu
638 652 339 telefono zenbakira eta agurru itzazu zendatutakoak
aldizkariaren bitartez. (Dohako zerbitzua).



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDE GOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Maddi Urrea (Irurtzun)



*Asmatu ezinean
Nondik etorria
Kondena, isolamendu
Guztien jatorria.
Kaiola beltz kanpoan
Nahastuz historia
Zazpi hil giltzapean
Sartuta txoria.*

*Altsasukoak aske
Oihu ezaguna,
Barrutikan kanpora
Kolpatzen dizuna
Altxa gaitezen bada
Borroka laguna
Egia bihurtu dadin
Gaur askatasuna!!*

Joxe Mugirorenzat puntua:
Herriaren taupada
Jendearen hitza

Oinak:
Askea, gaztea, habea eta hastea.

Doinua: Ikusi nuenian.

- 6 -



KORPUS EGUNEKO PROZESIOA

Tradizioari jarraituz, eskualdeko hainbat herritan prozesioak egin zizuten Korpus Egunean. Iribasen esaterako, hogeita bost lagun inguru elkartu ziren.



ARESOKO MENDI MARTXA


Irailaren 3an izanen da Aresoko 9. Mendi Martxa. 21 kilometroko ibilbidea izanen du. Aresotik irten eta Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Guratzetik pasa ondoren berriz ere Aresora jaitsiko dira.



ANTZINAKO AZOKA

Abuztuaren 6an Artisau merkatua, dantzak, musika, txotxongilo ikuskizunak, malabareak eta gehiago izanen dira Lekunberriko Antzinako azokan.

A zer-nolako oporrak!!!



Mikel Hernandez

Iepa Andrea!! Zer moduz uda hasiera?? Gaurkoan broma moduan askotan entzuten dugun esaldi batekin nator: “Magisterio es pintar y colorear” (“Irakasle-lana marraztu eta margotzea baino ez da”). Esaldi hau Lehen edo Haur Hezkuntzako Graduak oso errazak direla uste duten pertsonen ahotik entzun izan dut. Hasieran bromatzat har daitekeen arren, azkenean nahiko neketsua da horrelako baieztapenak entzutea, hain garrantzitsua den lanbide hau gutxiesten delako horrelako adierazpenen bidez, behin baino gehiagotan.

“Ikasturte osoan hainbeste lan egin eta gero, zilegia da merezitako oporrak izatea”

Kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, irakasle izateak pertsonekin lan egitea dakarrela, eta ondorioz, pertsonekin lan egite horrek bokaziozko lanbidea bihurtzen du. Hortaz, egunero ikasleekin ehuneko ehunean egon behar da irakaslea, eta ikasle bakoitzak dituen behar nahiz interes ezberdinak direla kontuan hartuz gero, are garrantzitsuagoa bilakatzen da irakaslearen lana. Bestalde, irakasletza ez da soilik edukietara mugatzen, balioetan ere hezi behar dira ikasleak. Hala, balio hauek etxean jasotzearen beharra ezinbestekoa da, ondoren eskolan balio hauen gainean lan egiteko eta familien eta irakasleen arteko elkarlana sendotzeko.

Hortaz, irakasleek udan, Aste Santuan edo Eguberrietan gehiegizko oporrak dituztela esaten denean, aipatu nahiko nuke opor hauek merezi dituztela hainbat arrazoiengatik: klase orduak, formakuntza etengabea, etxean klasea prestatzen sartutako orduak, bilera orduak... Ikasturte osoan hainbeste lan egin eta gero, zilegia da merezitako oporrak izatea urtean zehar.

Azken finean, irakasletza gehiago baloratu eta errespetatu beharreko lanbidea dela iruditzen zait. Lanbide honetan pertsonekin lan egiten den heinean, horrek duen balioari garrantzi gehiago eman beharko litzaioke. Hala bada, testu honetan idatzitako tituluari erreferentzia eginez, honakoa baieztatu nahiko nuke: “A zer nolako oporrak... baina merezitakoak”. Zuk nola ikusten duzu gaia Andrea? Agur bero bat!!

Aupa Mikel! Hemen nauzu, hiru egun barru kurtsoa amaituko duen irakasle hasiberri bat. Zuk bi alderdi aipatzen dituzu irakasle lanaren eta honen prestigioaren inguruan, eta jarraian dugun tartetxo honetan nire iritzia ematen saiatuko naiz.

Alde batetik prestigioaz hitz egin duzu, gizarteak irakasle gradua eta ondorengo irakasle lana gutxi baloratzen dutela diozu. Egia da noizbehinka irakasle graduaren inguruko bromak entzuten direla, hala ere, hau urtetan unibertsiteateko irakasle ikaskuntzetara sartzeko erraztasunak baldintzatu duela iruditzen zait (eta zenbaitetan inbidia puntu batek). Hau da, aukeraketan egon den filtro



Andrea Etxarri


“Edozein lanbidetan bezalaxe eskubide bat dela iruditzen zait”

gutxiagatik. Bazirudien edozein eta modu erraz batean irakasle izan zitekeela, eta honek ez du laguntzen. Bestetik, edozein arlotan bezalaxe, lan bat gertutik bizi ez duenak ez du inoiz horrek suposatzen duen esfortzua edo duen benetako balioa ezagutuko. Ongi legoke muturreko iritziak ematen dituzten horiei denboraldi batez berea ez den lan batean jartzea [kar, kar, kar].

Dena den, gero eta prestigio handiagoa jasotzeko bidean dagoela iruditzen zait, hainbat faktorengatik: gero eta formazio handiagoa eskatzen da, aukeraketan exijentzia altuagoa, profesionalizatzeko eta berrikuntza etengabea...Hala ere, aspektu honetan gizarteak irakasleei autonomia profesional eta autoritate gehiago eskaintzak lagunduko lukeela uste dut. Ongi eta gogoz eginez gero izugarriko gogobetetzea eta eragin sozia

zuala duen lanbidea iruditzen zait, etorkizuneko helduak eta orainaldiko haurrak hezten laguntzen ari gara, gizartean momentu honetantxe eragiten ari direnak.

Eta oporrak merezi ditugun ala ez? Bai, baina bere lana esfortzuz eta daukan onena jarriz egiten duen edonork izan behar dituen bezala. Edozein lanbidetan bezalaxe eskubide bat dela iruditzen zait. Luzeagoak edo motzagoak izan beharko lirakeen? Nik udan ere seguru aski nire irakasle lana hobetzen jardungo dut, baina ez dago egiten dugun lanaz gozatzea baino opor hoberik!





Leire Aranburu

Aldaketak



inora ahaztu teknologia dagoela aurre-
rapen eta abantaila gehienen atzean.

Larritzen nauena ez da teknologia hauek guztiak erabiltzea edo ez, ar-
zoa zertarako erabiltzen diren ikertzen hasten garenean sortzen da. Esan be-
zala, makinak bihurtzen ari gara, guztiz bakartuak, eta inoiz baino konektatua-
goak (bai kontrakoak diren bi ideia). Bakoitzak bere mundu birtuala sor-
tzen du eta bertatik mundu errealean murgiltzen da. Gure denbora librearen oinarri bihurtu da teknologia eta gure bizitza sozialaren agintari. Gure “egunerokoa” argitaratzen dugu eta munduari nor garen erakusteko beldurrik ez dugu. Baina eguneroko honetan gauza politak eta ponpoxoak besterik ez dugu erakusten, munduak onartzen dituen gauzak. Zure bizitza argitaratu dezakezu, nahi duzun guztia, baina zure bizitza ez duzu zuk diseinatuko. Zutaz hitz egingen den bitartean, zure bizitza akatsik gabea dela erakusten duzun bitartean, zer inporta du non dagoen Paris, Eiffel dorrearen ondoan argazkia badut eta munduak ikusi badu?

Jakin-mina galtzen ari gara, ezagutzeko grina, gure arrazoiaren elikagaia, izaki bihurtzen gaituen ezaugarria galtzen ari gara. Gure izatea jarraitzaileak lortu eta “gustuko dut” klikatzen jarraitzen dugun bitartean, dena ondo joango da. Arrakasta lortuko dugu eta maitatuak izango gara. Gizakiak gara eta gure oinarria da. Guztiok nahi dugu gustuko izan, maitatuak izan, baina hau al da benetan modu egokia egiteko? Gu gara maitatuak edo gure irudi eta bizitza asmatuak?

- 8 -

Asko ia ez dira ohartu ere egiten, ha-
maikak puntu-puntuan, jolas ordura joateko txirrinak jo du. Pasilloak jende-
z gainezka daude, batzuk klase ba-
tetik bestera liburuak eskuan dituztela,
hauek utzi eta jolastokira joateko pre-
saz. Besteak komunera ezin iritsiz ilarak harrapa ez ditzan. Gehiengo, hamaiketako eskuan jolastokirantz doa, pare batek etxean ahaztuta utzi du eta beste batzuek motxilan edo zaborrontzian, gaurkoan jarritako platanoa ez dutelako nahi. Baina orokorra da sortzen den zalaparta. Hemen eboluzioa txikia izan da, eta gainera okerrera egin du, lehen amak jartzen zuen ogitartekoa orain poltsatxoetan datozen txokolatezko opiltxoengatik aldatu da eta. Baina ez da hamaiketakoagatik bakarrik, denok baitakigu gaur egungo hezkuntza sistema guztiz zaharkiturik dagoela. Baina hori beste kontu bat da.

Baina zenbait aldaketa ordea guztiz nabarmenak dira, oso kasu gutxitan ikusi duzu bai institutuan, bai kalean, nahiz edozein lekutan sakelekoa eskuetan ez duen inor. Pavloven txakurrak bezala

“Automatak sortzen ari gara”

txirrina entzun orduko eskukoa hartu eta ezer berririk baden ikusi arte ez gara lasaitzen. Bizitza guztiz baldintzatzen digu, bestela esan, zuetako zenbatek ez duzuen inoiz entzun mugikorraren oharren soinua eta begiratzean irudipen hutsa izan dela ohartu?

Askok adierazi dute gai honekiko ar-
dura, gaur egungo gazte eta hurrek elkarrekin erlazioatzeko gaitasuna galdu dutela, harremanak guztiz hozten direla, komunikatzen ez dakigula... Eta ez da gezurra, automatak sortzen ari gara. Baina larria ez da gazteen kasua bakarrik, helduen kasuan ere berdina gertatzen ari da, nahiz eta askotan hori ez den aipatzen. Ez dakigu sakeleko edo teknologiarik gabe bizitzen, baina hau ez da guztiz kaltegarria, honi esker, bizitza askoz ere errazagoa da eta ezagutza guztiz amaigabea. Ezin dugu inondik

ANTZARAI
Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Asteleheneetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Bizitza ospatzen

Kaixo irakurle, udara on! Aurreko maiatzaren 26, 27 eta 28an Lekunberriko kiroldegian Euskal Herriko IV. Kontakt inprobisazio topaketak egin genituen. 143 pertsona apuntatu genituen pasa zirela, izen eman ez zuten beste batzuek ere. Gutxi gorabehera herena Euskal Herrikoak, laurdena Frantziakoak, besteak Madril, Bartzelona, Lleida, Asturias... Leku askotako jende jator asko etorri zen dantzatzera eta lagun arteko asteburu eder bat pasatzera. Banekien kontakt dantza sekulako tresna dela harreman osasuntsuak bideratzeko, norberarekin eta ingurukoekin, baina asteburu honetan magia urrats bat gehiago eman zuen niretzat.



Dantza hau oso gertukoa da, intimoa askotan, errespetu handia ematen du, gainera inprobisatzen denez, norberak hartu behar ditu erabakiak... Batzuek, erokeriatzat dute, beste batzuek orgiak egiten ari ote garen galdetzen dute... Gure asmoa ez da hori inola ere, errespetu eta zaintza berezia egoten da gure artean. Topaketaren hasierarako erritual antzeko bat egin nahi nuen, eta ohartu nintzen niretzat garrantzitsua zela dantza hau gure inguruan egin ahal izatea, garai bateko sorginekin ikusten nuen parekotasunarengatik. Beti iruditu zait garai hartan egingo zituzten topaketak ere malizia gabekoak izango zirela, ero xamarrek bai agian, baina ez umeak jateko eta elkarri mina egiteko... eta debekatuak eta akabatuak izan ziren.

Dantzarekin gure nortasun eta beharretara egokitze bidea haien bide beretik doala iruditzen zait, alegia gure beharretara egokitzen diren erlazionatzeko moduak topatzera. Topaketari hasiera emateko, bai ostiral iluntzean, baita larunbat goizean ere, eusten digun lurra eskertuz bertan eskuekin aurrea eta gero oinekin zapalduz, gure erritu propioa egin genuen denok: Baga biga

“Garai batean erre egingo gintuzten hau egiteagatik”

higa, laga boga sega, zai zoi bele, topa keta gu! Garai batekoen eta oraingoan arteko zubia, euskaldunen eta mundutarren arteko zubia, indartzen gintuen zubia, gure barneko hotsak eta beharrak ateratzen zituen zubia... Jendeak oso ongi ulertu zuen ideia, auto indartzearen eta bizitzaren ospakizunaren bidean geundela.

Ekintza pila bat egin genituen, saio gidatuak kiroldegian, saio libreak (jam saioak). Bertan musika zuzenekoa bakarrik izan zen, jendeak tresnak ekarri zituen eta ahotsen laguntzez ere, momentu oro musika, ezusteko ederrak ateratzen ziren, umeentzat saioak ere egin genituen (eta ez, ez genituen jaten!). Kantinan ere sekulako festa egin genuen, dantza eta dantza. Ekintza berezietakoa ordea, herriko plazara egin genuen ateraldia izan zen, egiten dugunaren erakustaldi bat egin nahian.

Gure bi kidek prestatu zuten egitekoa, “Transhumantziak” deitu zioten.

Kiroldegitik plazarako bidea bide gorritik isiltasunean eta bikoteka egin genuen, hartu gintuen herriaz gozatzuz. Plazan berriz, hiru taldetan banatu ginen denak (100 pertsona inguru izango ginen), hasieran talde bat sartzen zen eta besteak moldatzen ziren sortzen ziren formetara... Horrela, denak pasa ondoren, borobil handi bat egin genuen eta gure errituala eginez (Baga biga higa...) jiraka hasi ginen plazaren erdian, sekulako indarra sortuz. Gero libre aritu ginen, pozik, indartsu, elkarrekin asteburua pasa izanaren pozaz eta konfiantzaz... Sua sortu zen bertan.

Bukatzeko hitzak hauek izan ziren: “Garai batean, erreko gintuzten hau egiteagatik, baina guk, maitasunez eta errespetuz, bizitza ospatu besterik ez dugu egin nahi”. Akelarre bat izan zen, benetako indarra atera zen, ospakizunarena, pozarena, bizitza ospatzearena. Argigarria izan zen niretzat, bizitza ospatzeko, aurrez landu behar dugula, arriskatu behar dugula, elkartu, mugitu... Garai batekoen bide jatorra modu berrian jarraituz, aurrera!

Kolonbiako oihanetik Galarretako pilotalekura

- 10 -



Kemen Aldabe lekunberriarrak 19 urte ditu eta ETB2 telebista kateko "El conquistador del fin del mundo" saioko 17. edizioan parte hartu du. Hiru urte daramatza Galarretan, erremontean entrenatzen eta ekainaren 17an profesionaletan debutatu zuen.

“El conquistador del fin del mundo” saiko castingera joan eta hartu...

Bai, uztailaren 25ean in nun Iruñen. Betidanik ikusi det programa hori eta aspalditik jun nahi nun. 18 urte bete nittunen, castinga noiz zen enteatu nintzen eta jun in nintzen. Anaie denda utzi eta martxa!

Solte ikusten zitzaizun...

Bai, beño lotsa ere nabaritzen da. Jun aurretik nahiko lasai neon, beño gero sartu nintzenen, han kamerak eta fokoak ikusita pixkoat nerbioso jarri nintzen.

Hortik hilabetea edo hola abisatu zian aurre-sailkaturik neola, eta handik hilabetera pauso bat aurreago nengoela eta errekonozimendu medikoa pasatzera joan beharra nula... Hoi pasa eta ja esan zian prepatzeko pixkat eta juteko. Eskalatzeraz jun nintzen probazteatik, beño besteik gabe.

Noiz irten zinen hemendik?

Azaroaren 4an. Han hilabete osoa pasa eta gero abendun hasieran buelta.

Eta zer moduzko esperientzia izan zen?

Bizitzako esperientzie, beño oso gogorra. Han zauden bittarten badaude momentuk esaten duzuna: “Ze ittet nik hemen? Zeinek biali dit nei honea?”.

Bazenekien nora zenihon?

Ez, ez. Bilbora jun ginen, han taldeki-deekin eta ETBkoekin juntatu, txartelak eman zizkiguen eta gu bakarrik jun giñen auntza. Bogotara eta gero Santa Martara (Kolonbia). Han zaren Gotzon eta besteak gure esperon, eta basoan barna galduta zeon kanpin batea eaman ziguen. Han bi eun pasa eta gero eun baten, goizez etorri zien, dena kendu, sakelekoak eta guzi eta saioa grabatzea!

Eta zer izan zen zailena?

Gosea, baina han dena pilotzen zaizu. Gosea, logura, moskitok, aldamenekoan “mala letxea”, zurea... Ni ez nintzen jaleotan sartu.

Probak ikusten diren bezain gogorrak al dira?

Batzuk bai, unifikaziokok gorragok, fisikoki behintzet gorragok. Taldekako fase horretan, batzuk badare fisikoki gorragoak dienak, beño beste batzuk adibidez jatekoak dienak, txerrienak eta hoik ez die fisikoki gorragoak. Beño unifika-



Hiru urtez Galarretan entrenatzen ibili eta gero profesioalera salto egin du lekunberriarak.

ziokoak oso gogorrak, atzetik dakarkizun nekearekin, janik gabe...

*“Gosea izan da
gogorrena”*

Egoerarik gorrena zein izan zen zuretzat?

Ahoan ure zendukela duna igo beharreko proba hura. Bukatu nunen hango teknikari batek kontrol puntura joateko esan zian. Auntza juten hasi nintzen ni bakarrik eta bapaten hankak indarririk be eta lurra. Eneon mareauta, beño ezin nintzen zutik jarri. Hortxe bost minutuz eondu nintzen eta gero altxa nintzen, beño hor pentsatu nun, hau ja grabea da.

Eta momenturik pozgarriena?

Asko, holako abentura baten gorabehera asko izaten dia. Proba bat irabazi eta janarie ematen dizuenen kriston ilusioa sentitzen duzu. Telebistan ikusten denen ez du ematen, baina han goseik zaudenen...

Hango kideekin zer moduz moldatu zinen?

Nik ez det arazoik euki. Batzuekin besteekin beño hobeto, adibidez Aiskander, Aitor eta Izetakin oso harreman estua dauket.

Etxekoek ze esan zizuten saioan parte hartu behar zenuela esan zenienean?

Ustet amak ez zekila castingera jutekoa nintzenik. Ama oporretan zeon eta ni denda lanen. Banihoala esan nionean, orduan esan zien ea erotue neon, zertako jun behar nun... Ikatuta bai ama eta baita amona ere. Atte ez, atte lasai: “Jun dadila, bueltatuko da!”.

Eta bueltatu zarenean lagunek zer esan dizute?

Ez zuela espero hainbeste aguanta-tzeik! Launek beti adarra jotzen, kritika alde guzitatik! [Kar, kar, kar].

Kameren aurrean zer moduz sentitu zara?

Ni eneon ohittuta eta lehenengo euntan kamera etorri eta gertutik grabatzen hasten zenen... beño gero eunek pasatzen doazen heinen ahaztu ez zaizu itten, beño ez diozu hainbeste kasoik itten.

Finalera ez zinen iritsi...

Pena ikeragarrie! Gero telebistan finala ikusten penaz, gustoa eongo nintzen finalen, beño ezin izan zen eta...

Kantatzen ere atera zara telebistan...

Bota nindutenean abestu in nun, beño platora jun nintzenekoa ez nun espero. Jun eta hasieran Xabi Solano trikitixakin azaldu zenen ja imajinatu nun... Eta kantatu in behar, ezezkoik ezin esan!

Asko argaldu zinen...

Hamaika kilo! Han hamaika kilo galdu eta gero, honea etorri jateko kriston

elkARRIZketa:

“Biziko esperientzia izan da, berriz ere jungo nintzeke”

antsietatearekin eta hamabost eunetan hamabost kilo irabazten nittun. Beño gero seittun jetsi nintzen nere pisura! Netzako okerreza gosea izandu da. Proba bat itten zendun eta hori bukatutakoa beste ordu guzitan ezin zenun ezer ere in, ler inda.

Anekdotak berezirik?

Telebistan ez zen atea, beño unifikazioan geundenen, Izeta eta ni muino baten lotan geundela, soinu bat entzuten hasi ginen eta esnatu eta asto bat zen. Kriston gosekin geunden eta Izeta baserriko gizona eta labana hartu eta: “Akatu in behar diu hau!”. Han gendun soka batekin heldu eta harri batei lotu giñun eta Izetat ja berotue: “Hau akatuzkeo hemendik jangoiu!”. Teknikarietako bat korrika etorri zen ez hiltzeko esanez, bestela ez ginela handik bizirik irtengo. Tribu bateko astoa omen zan.

Esperientzia ona orduan...

Bai biziko esperientzia! Berriz ere jungo nintzeke.

Bestalde, erremontean ekainaren 17an debutatu zenuen. Lekunberriko erremonte eskolan hasi zinen zu...

Bai, Josu Apezetxeekin Lekunberriko erremonte eskolan hasi nintzen. Lekunberriko hamar bat gazte hasi zien eta gero pixkanaka uzten joan zien eta lau bat gelditu zien, ni orduan hasi nintzen probatzen, hamalau urtekin. Urtebete geroago, Martirena eta Mitxaus Galarreta juten hasi zien eta nik utzi in nun, beño ondoren, Martirenak animatuta probatzera jun nintzen eta hiru urte damazkit han.

“Uste beño lasaiego egon nintzen”

Eta espero al zenuen aurten debutatzerik?

Ni afizionatutik entrenatzea juten nintzen eta geroz eta hobeto jokatzeko nun eta enpresak zer edo zer ikusiko zitena... Abendun etorri nintzen Kolonbiatik eta hilabete batez gaizki eondu nintzen.



Bi hilabete eman nintuen entrenatu gabe. Berriz erritmoa hartzea kosta egiten da, kirol azkarra delako, beño berriz jarri nintzen eta...

Debutaren eguna nola bizi izan zenuen?

Goizen nahiko nerbioa neon. Nere launek bazkarie in zuen, 60 pertsona elkar-tu zien eta bazkal aurrean Albin beaiekin eon nintzen eta lasaiego. Etxea joan bazkaldu, eta Galarreta jun nintzen eta pixkoat nerbioa, beño aldageleta sartu eta ongi. Uste beño lasaiego egon nintzen.

Xabier Azpirotz uitziarra zenuen bikote...

Bai, Beñat eta Labakaren aurka. 40-31 irabazi eta pozik. Launek antolatuta zeukean autobusea igo eta Iruñea par-randa!

Orain profesioletan egoteak zer eskatzen dizu?

Konpromiso haundigoa, larunbat goizetan eta atxaldetan libre, osteun atxaldetan ere jokatzeko prest eta udan, zenbait ostiraletan ere partiduak jarriko dizkidate.

Aurrelaria zara zu... Aurrean ongi jokatzeko sekretua zein da?

Behar den lekuan jartzea, pilotak izugarrizko abiadura hartzen do eta ez bazaude behar den tokian pasa itten zaizu. Indarra behar da, beño teknika garrantzitsuagoa da.

Denbora gutxian, Larraungo hiru erremontista hasi zarete profesioletan jokatzeko...

Bai, hiruek kuadrilla berekoak gañea! Eleante!



60 lagun joan ziren Galarretara Kemeni animoak ematera.



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Inge Zubillaga Irazu

Uztailak 11, 9 urte.

Zorionak potxola!!!

Uztailak 11n, 9 urte egiten dituzu txiki! Pixkanaka handitzen zoaz, gure etxeko txikia ja ezta hain txikia. Oso ongi pasa eguna maitia!!!!

Muxu asko izan, ama eta aitaren partetik!!!



Naroa Flores Eskamendi

Ekainak 22an 13 urte.

Segi hain jator ta umoretsu.

Muxu bat etxekoan partez. Aita, ama, Ibai eta Lander.



Ibai Flores Eskamendi

Uztailaren 25, 11 urte.

Ongi pasa eguna eta asko disfrutatu udara!

Muxu bat etxekoan partez.

Naroa, Lander, aita eta ama.



Nora Nazabal

Uztailak 14, 6 urte.

Zorionak politte!!

Oso ongi pasa zure urtebetetze egunean, aita, ama eta Igorren partez.

Muxu potolo bat!

Danel Aguirrezabala Iriarte

Abuztuak 18, 2 urte.

Zorionak Danel!!!!

Oso ongi pasa zure egunean eta muxu pilo-pilo bat zuretzako, aita, ama, Elene eta Arribeko familiaren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Belarra jaisteko kabletako bat berreskuratu dute

Joan den alean aurreratu genizuen moduan, Araizko udalaren laguntza eta babesarekin Araitzen lan eta bizi batzordea sortu dute bailarako nekazaritza, elikadura burujabetza, turismoa, komertzioa, ostalaritza eta ondarea sustatzeko. "Lur emankorrrak ditugu eta ekoizten diren produktu osasungarriak dira, gurasoek, arbasoek, egindako lan eskergerari eta erakutsitako jakinduriari esker ditugu gaurkoan gurekin. Herrian eta Naturarekin armonian bizitzen jarraitu nahi dugu". Horretarako, sor-marka bat sortu dute, bailarako baliabide guztien ikur izanen dena, "Araizko zapoak". Eta ezagutzera emateko Juan Gorritik diseinatutako logo bat ere plazaratu dute.

Dagoeneko, esparru ezberdinetan lanean hasiak dira batzordeko kideak eta joan den hilean Intzako Orixeneako bordan garai bateko kablea berreskuratu zuten. Batzordearen helburuetako bat bertako ondarea zaintzea eta balioan jartzea da. Garai batean asko ziren Araitzen belarra Malloetatik baserrietara jaisteko erabiltzen zituzten kableak. Horietako asko jada desagerturik daude. Batzordeari esker, Intzako kabletako martxan jarri eta erakustaldia egin zuten.



Baluartetik Arriagara

Joan den abenduan Baluarten izandako arrakastaren ondoren, Luzia Peña lekunberriarra Bilboko Arriaga antzokian izan zen orain dela hilabete. Sei emanaldi eskaini zituen bertan Ópera de Cámara de Navarrarekin eta Bizkaia Orkestra Sinfonikoarekin eta dagoeneko Sevillan eskainiko duten beste ikuskizun batean parte hartzeko proposamena egin diote.



Antzerkiari eskainitako asteburua

4. Kaleko Antzerki Festibala izan zen Intzan joan den hilaren 10etik 11ra. *Larri Portier* clown ikuskizunarekin eman zioten hasiera aurtengo jaialdiari, eta ondoren emandako txokolatada eta gero, *Alikate Kabareta* antzezlanaz gozatu zuten. Aurten ere Sorabileko sormen taldeak bere ikuskizuna egin zuten igandean eta Borobil taldearen *Ali Baba eta 40 lapurrak* lanarekin amaitu zuten antzerkiari eskainitako asteburua.

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

Beteluko igerilekua bainu naturaleko ur-eremuen sarean



Hemen da uda eta dagoeneko hasi dira tenperatura altuko egunak. Freskatzeko hainbat erreka eta txoko ditugu gurean, Beteluko presa esaterako. Ekainean igo zuten presaren ur maila eta ausartenak bainatu dira jada Araxes erreka ur hotzetan.

Aurten gainera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak osasun eta ingurumen baldintzak kontrolatzen dituen bainu naturaleko ur-eremuan sartu dute. Guztira horrelako hamabi eremu daude Nafarroan.

Lau urte bete ditu Satorzulok

Arribeko Surtidorearen azpian dagoen lokalak bere laugarren urteurrena bete zuen joan den hilean eta bertso bazkari batekin ospatu zuten. Iker Zubeldia eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren bertsoetan. Guztira, 60 lagun inguru elkartu ziren.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Orduategia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Herriak eman du bere boza

2.504 lagunek bozkatu zuten joan den hilaren 18an Mendialdeko Gure Esku Dago deitutako herri-galdeketa. Nafarroako 24 udalerrik izan zuten lehen aldiz euren erabakitzeko eskubideari eta estatus politikoari buruz bozkatzeko aukera. Gainera, eskualde mailan Nafarroan pausoa eman duen lehena izan da gurea.

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Imotz, Basaburua, Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza, Lekunberri, Altsasu, Arbizu, Arruazu, Irañeta, Irurtzun, Lakuntza, Olatzagutia, Urdiain eta Ziordia, guztira 27.095 herritar zeuden herri-galdeketa parte hartzera deituta eta horietatik 7.784 pertsonak bozkatu zuten, %28,73k.

Nafarroan deitutako hirugarren herri-galdeketa izan da. Etxarri Aranatz izan

zen lehena 2014an, Bakaikuk 2016an egikaritu zuen bere eskubidea eta azken hauekin, jada 26 udalerrik erabaki dute foru erkidegoan.

Galdera bertsuei erantzun behar izan zieten denek, euskal estatu subirano, aske edo independente baten herritar izan nahi duten edo ez ezagutzeko. Gurean, Mendialdeko Gure Esku Dago Elkarteak deituta zortzi udalerritan egin zen herri-galdeketa, Aranon, Goizue-

tan, Araitzen, Betelun, Larraunen, Lekunberrin, Leitzan eta Areson. Guztira, 28 herri biltzen ditu elkarteak eta 6.630 lagunek izan zuten parte hartzeko aukera. “Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?” eta baiezkoa bada, “Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?”, bi galdera horiei, 2.504 herritarrek erantzun zieten, %39,56k. Araitzen bozkatzera deitutako biztanleen %43,20k parte hartu zuen, Betelun %46,15ek, Larraunen %35,82k eta Lekunberrin %23,62k.

Gure eskualdean, jasotako erantzunei erreparatuz gero, bozkatu dutenen %95-98k baietz erantzun diote lehen galderari. Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea nahi du gehiengoak. Eta bigarren galderari ere gehiengoak baietz erantzun zion, gehienek Euskal Herri libre bateko herritarra izan nahi dute.

Elkartea sortuz geroztik udalerrri bakoitzeko bi edo hiru ordezkari hasi ziren elkartzen eta sei lan-talde osatu zituzten, herritarrekin osatutako taldeak, elkartearen erabakitakoak herriz herri gauzatzen joateko. Antolaketan distantzia izan da ezbairik gabe elkartearen zailtasunik handiena, herri asko direlako eta bakoitzak bere nolakotasunak dituelako: gaiarekiko jarrera, herritarren batez besteko adina, herri ekimenetan parte hartzeko ohitura...

Larraunen, esaterako, biztanleen batez besteko adina altua da eta dinamika ezagutzen ez zuten jende askorengana iristea ez da lan erraza izan. Dinamikako kideek etxez etxe joan behar izan zuten, informazioa ematen eta babes emateko aukera eskaintzera. Horregatik eta 18an bozkatzera joan ezin zirenei euren eskubidea gauzatzeko aukera bermatzeko galdeketa aurreratuak egin ziren herriz herri.

“Gu gai izan baldin baga, arduradun politikoak zeren zain daude?”

Sugoi Etxarri eta Josu Oreja, Larraun eta Lekunberri eta Araitz eta Beteluko taldeetan ibili dira buru-belarri lanean eta gertutik bizi izan zuten joan den hilean egindako herri galdeketa.

Herri galdeketa eguna nola bizi izan zenuten?

Josu: Urduritasun haundigoa izan nuen nik aurreko astean egunean bertan baino, nik egun hartan asko disfrutatu nun, dena lotuta zeonaren sentsazioa giñulako eta alde horretatik lasai.

Zein ordutan hasi zineten dena muntatzen?

Josu: Gu, Betelun eta Arriben, goizeko zortzitan.

Sugoi: Gu seietan, hemen hiru gune giñauzken, frontona bazkaria itteko, boz lekua eta plazako taula eta txozna. Egia esan, nik ere pentsatzen nun eun hoi tentsio haundikoa izanen zela eta horregatik bezpera nahiko lasai hartu nun, baina oso eun politte izandu zen.

Josu: Jasotzen giñuzen bibrazio guzik, denak, positiboak zien eta ikusten giñun jendea erantzuten ai zela modu alai baten, tentsioik gabe...

Espero ez zenuten jendea ere hurbildu al zen?


Sugoi: Bai, bai. Batez ere hasieran, lehenengo ordu hartan, hasten za ikusten jendea hurbiltzen den edo ez, eta hasieratik sortu zen ilaratxo bat. Tartean jende ezezaguna edota zuzenean berarekin harremanetan egon ez zaren jendea ikusten giñun eta, ongi joango zenaren sentsazioa giñun.

Goizean, Arriben, artisau azoka izan zen...

Josu: Bai, azkenen pesta giro sortu zen eguneko protagonista herri-galdeketa zela ahaztu gabe. Ez zen inor hurbildu musika aitzera bozkatu gabe. Jende guztia zegoen erabakitze eskubidearen aldeko festa hartan murgilduta eta parte hartuz. Jendearen harridura eta aldi berean, alaitasuna sumatzen zen. Ez zen egon giro txarrik, nahiz eta pertsona oso ezberdinek elkartu. Errealitate



Paula Etxarri izan zen Lekunberrin boza eman zuen lehena eta boza-emaile gazteena.



Adin guztietako herritarrek ilusioz parte hartu zuten.

ezberdineko jendea hurbildu zen, Araizko Egunean edo bestelako ekitaldieta-
ra hurbiltzen ez den jendea esaterako,
egun hartan plazara hurbildu ziren eta
gu pozik.

Sugoi: Larraunen kasuan, goizeko
ekintza bereziena ezkil-jotzea izandu
zen, kasik Larraungo herri guzitan eta
aldi beren jo zituzten ezkilak. Ondoren,
txistulariak, trikitilariak eta batukada
ibili ziren Lekunberriko kaleetan barna
eta gero plazan aizkolarien saioa buka-
tutakoan eguerdiko ekitaldia egin ge-
nuen.

Eta jendea hurbildu al zen?

Sugoi: Bai, eguerdi partean bai. Hemen
festa eta bozka gunea berezi egin geni-
tuen eta bozkatzera etorri ziren batzuk
ez ziren festara hurbildu, eta alderan-
tziz. Baina, konturatu ginen herritarrek
bozketa serio hartu zuela.

Josu: Askok arrittu itten zeen baldintzak
betetzen ez zittuelako ezin zuela bozka-
tu esaterakoan.

Jende asko gelditu al zen bozkatu ezi- nik?

Sugoi: Bai. Larraun eta Lekunberrin,
guztira, 40-50 pertsona gelditu zien
ezin bozkatu NAN txartela iraungita iza-
teagatik edo bestelakoengatik. Hemen-
goak izanda eta guk hemen erroldatu-
rik daudela jakinda ere ezin. Pena eta
amorrua ematen zun baino...

Josu: Betelun ere zortzi eta Araitzen
beste hamar bat gelditu ziren bozkatu
ezinik. Guk kalkulatu giñun, %5 gelditu

zela bozkatu gabe bal-
dintzak ez betetzeagatik.
Gu %50eko parte-hartzea
lortzeko zortzi bozen faltan
gelditu giñen. Eta Araitzen
ere antzeko.

Lekunberriko bazkarian zenbat lagun elkartu zine- ten?

Sugoi: 180 inguru, azkene-
ko momentuan jende asko
animatu zen. Arratsaldea
lasaiagoa izan zen, nahiz
eta azken orduan jende
asko etorri zen bozkatze-
ra. Azkeneko minututan
pike sano bat eendu zen
Lekunberri eta Larraungo

ordu erdian egin genuen kontaketa, bai
Betelun eta baita Araitzen ere.

Emaitzarekin pozik?

Josu: Ikaragarri!

Sugoi: Oso pozik. Hasieratik azpima-
rratu izan dugu garrantzitsuena al-
derdi kualitatiboa zela, eskubide bat
praktikan jartzen ai gala, normaltasu-
nez eta herritar talde baten eskutik. Eta
emaitzarekin Larraun eta Lekunberrin
herri galdeketa egin ahal izateko egin
zen sinadura bilketan lortutako kopurua
gainditu giñun eta oso pozik. Honekin
demostratu dugu herritarrak gai garela
hoi itteko. Eta gu gai izan baldin baga,
arduradun politikoak zeren zain daude?

Josu: Gu ere pozik gaude, ikusten du-
lako jendea kontzientziaturik daula.
Guk ez giñun sinadura bilketa etxez
etxe itteko erabakia hartu, Lekunberrin
eta Larraunen in zen bezala, eta guk lor-
tutako sinadura bilketaren zenbatekoa
bikoiztu egin dugu herri-galdeketa.
Hauteskunde orokor batzuetako parte-
hartze datuetatik oso hurbil gelditu
gara, hamar puntutara baino ez gara
gelditu, hau da, hogeitazko alde.
Beraz, uste dugu jendek badakiela zein
den ekimen honen helburua eta par-
te hartzeko prest dagoela eta etorki-
zunean modu loteslean erabakitzeko
aukera etortzen bada, hemen %45 be-
rez mobilizatuta egongo da, normaltasu-
nez ikusiko du eta aukera ematen ba-
zaio modu loteslean bozkatzeko egingo
duela, dudarik gabe.

Sugoi: Jendea bozkatzera etorri da ja-
kinda ez duela ondorio praktikorik eu-

“Gure baliabide handiena auzolana izan da”

mahaikideen arten, 300 bozetara nor
allatuko ote zen... Larraunen jende as-
kok bozkatu zun bozka aurreratuetan,
baino mantsoago zihoan igotzen eta
Lekunberri azken orduan asko ai zen
igotzen... Baino azkenen, bozka-lekue
isten ai zela korrika, azke-
neko hiru herritar etorri
ziren eta Larraunen 302
bozetara allatu giñen.
Txalo arten jaso giñuzen
azkenekoak.

Eta kontaketa erraz egin al zenuten?

Josu: Ongi. Protokoloa
zorrotza zenez eta ma-
hien eraketan daukazun
autokontrol batzuk behar
bezala betez, dena bat
etortzen zen eta kon-
taketa errexa izan zen,
nahiz eta guk bi galdera
izan. Hasieratik bat eto-
rri ziren boto kopurua
eta zenbaketa orriak eta



Arriben egin zen bazkarirako janari goxo-goxoa prestatu zuten artista hauek.

PARTEHARTZEA

Mendialdea	2504 boz	%39,56
Araitz	200	43,20
Arano	59	61,46
Areso	105	42,51
Betelu	132	46,15
Goizueta	404	63,32
Larraun	302	35,82
Leitza	1011	40,04
Lekunberri	291	23,62
Bortziriak	1914 boz	%26,69
Arantza	310	%60,31
Bera	626	%19,79
Etxalar	178	%26,97
Igantzi	215	%41,59
Lesaka	585	%25,27
Sakana	2959 boz	%23,65
Altsasu	1093	%17,28
Arbizu	378	%42
Arruazu	48	%54,55
Irañeta	29	%20,42
Lakuntza	376	%15,58
Olazti	342	%35,91
Urdiain	252	%45,49
Ziordia	153	%46,36
Imotz-Basaburua	404 boz	%37,62
Basaburua	255	%36,12
Imotz	149	%40,49

EMAITZAK

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?

NON	BAI	EZ
Betelu	125 - %95	1 - %0,7
Larraun ibarra	585 - %98	2 - % 0,4
Araitz	190 - %95	1 - %0,5
Mendialdea	2422 - %96	18 - %0,7

Baiezkoa bada, nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?

NON	BAI	EZ
Betelu	109 - %95	6 - %4,5
Larraun ibarra	540 - %91	24 - %4
Araitz	172 - %86	9 - %4,5
Mendialdea	2463 - %90	60 - %2,6

kiko eta gainera gure kanpaina guztiz herritarra eta guztiz boluntarioa izandu da, ez dugu ia baliabide ekonomikorik izan. Gure baliabide handiena auzolana izan da. Eta hori horrela lortzea izugarriko poztasuna da.

Zein zailtasun izan dituzue hilabete hauetan guztietan?

Josu: Zailtasun bakarra gure buruarengan izandako segurtasun falta izan da. Dena pasa ondoren, konturatzen zara genituen oztopo bakarrak genituen dudak ziela, erabaki txikiak ongi hartzen ote genituen...

Sugoi: Nik uste erabakitzeke eskubidea oso barneratua dagoela gure eskualdean. Zailtasun handiena gure kasuan, nik uste komunikatzea izan dela, nola komunikatu heldu zen hau gauza handie zela. Jende masa handi bat mobilizatzea ezinezkoa da jendeak ez bazaitu serio hartzen eta guk egindako kanpaina guztia horretara bideratu dugu. Ha-

“Eskubidea benetan gauzatzeko pausoak ematen jarraitu behar dugu”

sieran, herri-galdeketa garrantzia ulertaraztea kostatu egin zitzaizun. Baina bukaeran izugarriko bultzada eman diogu, oso kanpaina ona egin dugu, hedabideetan egindako elkarrizketekin, bideokliparekin, pertsona ezagun zein herritar ezezagunen ikus-entzuzkoekin... Izugarriko babesa izan dugu, horiek egiteko eta horrek bultzada eman dio jendeari erakusteko heldu zen hori handia zela.

Antolakuntza aldetik zer suposatu du Mendialdeko gainontzeko herriei elkartu izanak?

Josu: Guk sortu dugun talde hau ez da desegin honen ondotik, ikaragarri ongi funtzionatu dugu. Lehenbiziko aldia da gurean horrenbeste herri elkartzen garena bertako ekimen bat antolatzeke. Eta egie esan, elkartu ginenean oso erritmo ezberdinak genituen gure herrietan, baina saiatu gara mezua bateratzen. Adibidez, Larraunen momentu batzutan esanez: “guk hau ez dugu egingo eta hau elebiduna egingo dugu”,



Betelun ere bozka-lekua jarri zuten plazan.

beste herri batean ekintza zehatz bat ez egitea erabakitzeke askatasunarekin etab. Horrela denak erritmo berean konektaturik egotea lortu dugu, baina aldi berean herri bakoitzeko errealitateak errespetatuz eta horietara egokituz. Denak nahiko eroso sentitu gintezkeen mahai bat lortu dugu. Galdera zehazteko azken bileran, hiru orduz ibili ginen eztabaidan. Oso errealitate ezberdinak ziren, baina azkenean lortu genuen eremu neutro hori.

Sugoi: Nik uste talde oso eraginkorra osatu dugula eta era berean, eskualdea kohesionatzea lortu dugula.

Eta orain zer?

Josu: Orain pixka bat lasaitzeko momentua da, baina ekimen hau aurrera doa eta etorkizunean lan egiten jarraituko dugu. Eta helburua argi dugu: galdeketa lotesle bat Euskal Herri osoan!

Sugoi: Momentu honetan Euskal Herriko esparru politikoan ez dago bide argirik erabakitzeke eskubidea praktikan jartzeko, baina guk bozka eman dugu eta guri jada inork ezin digu esan ezin dugula erabaki. Jendeak jada barneratu du erabakitzea dagokiola eta normala dela. Eskubidea benetan gauzatzeko pausoak ematen jarraitu behar dugu!

Mailoperen alde, elkarrekin kantuan



Giro ederrean ospatu genuen aldizkariaren aldeko kantu jaialdia Betelun. Aralar Musika Eskolako ikasleez gain, Errazkin, Uitzzi, Aldatz eta hainbat herritako herritarrak taldeka igo ziren taula gainera. Plaza goraino bete zen eta gauera arte iraun zuten kontzertuek eta jai giroak. Eskerrik asko parte hartu zuten guztiei eta bereziki Aralar Musika Eskolari saioa antolatzeko egindako ahaleginagatik. Hona hemen ekitaldian jasotako zenbait irudi.



Larraundarren eguna

Urtero ibarreko herri bat aukeratu ohi dute antolatzaileek Larraungo Eguna ospatzeko eta aurten Alliren txanda izan zen. Ekainaren 17an, bertan ospatu zuten larraundarren eguna. Arratsaldean, txikiak Zirika Zirkus Konpainiarekin jolasean aritu ziren eta globoflexia tailerra egin zuten. Iluntzean, barrikotearen bueltan elkartu ziren eta Trikidantzekin gauera arte iraun zuen festak.



TAXILON Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA ARLOETAKO HORNIGAIK BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

GARAJAZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika 948 504 450
Inglese
lengua 64825352
kimika
marrazketa tekniko
buskera 64825352
historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZKI!

Iritsi da uda

Ekainaren 23an San Joan bezpera ospatu zuten eskualdeko zenbait herritan. Iluntzean, udako solstizioko gaurik moztuzenean, suak piztu zituzten herriko plaza eta kaleetan eta ausartenak gainetik salto egiten ibili ziren udari ongi etorria emanez. Jatorriz ospakizun paganoa izan arren, gaur egun

kristautasunak bere egutegiaren parte egin du. Lekunberrin gainera San Joan herriko patroia da eta asteburu osoko festa antolatu zuten. Larunbatean, goizean izandako haurren pilota partiduen ondotik, herri bazkaria egin zuten herriko plazan eta gauera arte iraun zuen festak.




Lagunasesoría S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

“Gai gogorrak lantzen ditut, baina esperantza mezu bat zabaltzen saiatzen naiz”



Xabier Zamargilea lekunberriarrak “Beharbada bai, beharbada ez” diskoa atera berri du Zamarra eta Aterkia musika taldearekin.

Zure lehen diskoa kaleratu berri duzu, baina aurretik zenbait maketa ere grabatuak dituzu...

Bai, orain dela zazpi urte abestiak sortzen hasi nintzen neure kabuz eta maketa batzuk grabatu nituen, baina ez nituen agitaratu.

Eta nolatan hasi zinen abestiak sortzen?

Txikitan Aralar Musika Eskolan ibili nintzen eta gaztetxo nintzela kuadrillako lagunekin batera ZATA izeneko talde bat sortu genuen, pare bat urtez jotzen ibili eta gero utzi egin genuen eta gero DIOT taldean aritu nintzen kontzertu batzuk eskaintzen. Ondoren nahiko bazterturik utzi nuen musika, baina zortzi urteren ondoren, musika egiteko gogo sortu zitzaidan. Gitarra klaseak hartzen hasi nintzen eta Jorge Abadias irakasleak animaturik abestiak sortzen hasi nintzen. Harekin grabatu nuen lehendabiziko maketa (Lotara). Horren ondotik Zamarra eta Aterkia proiektua sortzen dute eta hasiera batean asmoa Jorgerekin abian jartzea bazen ere, Jorge kanpora joan zen eta Carlos Quilezekin emanaldiak eskaintzen hasi nintzen eta 2016ko udaberrian Beñat Artze perkusio-jolea batu zen taldera.

Hirukotea osatu zenuten...

Bai, baina joan den urtean Carlosek taldea utzi eta bere ordez Manex Albira sartu zen. Horrela taldea egonkortu eta proiektua aurrera ateratzea lortu dugu. Gaur egun, laukotea gara, Miren Aranguren baxu jolearekin batera. Autore proiektu bat da hau, nire musika jotzeko talde bat da.

Noiz hasi zineten kontzertuak eskaintzen...

Irailean iritsi zen Manex eta udazkenean hasi ginen kontzertuak ematen.

Lehenengo kontzertu haiek ia entseatu gabe egin genituen, musikari hauek oso-onak dira eta ongi atera ziren, baina nabaritzen zen oraindik taldea sendotzeko zegoela.

Eta noiz hasi zineten grabaketa lanekin?

Martxoan “Gaztelupeko Hotsak” zigilupean grabatu genuen diskoa Beasaingo Pottoko estudioan. Fredi Pelaez izan genuen teknikari eta zenbait abestitan ere kolaboratu zuen.

Hamaika abestiz osaturik dago...

Bai. Ez da erraza estiloa definitzen, baina pop eta jazz estiloen artean dago, ukitu brasildarra ere badu. Musika esperimental dela esan liteke, abesti batetik bestera aldaketa handia dago, bai estiloan eta baita testuetan ere. Gai intimistak eta sozialak jorratu ditut, umore eta surrealismoa nahastuz. Errealitatetik absurdora joaten dira zenbait abesti. Gai graziosak eta latzak tartekatu ditut. Gai gogorrak lantzen ditut, baina esperantza mezu bat zabaltzen saiatzen naiz. Disko honekin zazpi urte hauetan egindako lana batu nahi izan dut, nahiz eta sortutako abesti pila bat kanpoan gelditu diren.

Zure abesti pertsonalak izan arren, gainenontzeko taldekideen ekarpenak garrantzitsuak izan dira, ezta?

Bai. Manex gitarra joleak esaterako taldearen produktzioa egin du, oso musikari ona da bera eta instrumentazioa bere estilora moldatu du.

Maiatzean kaleratu duzue...

Aste Santurako atera nahi genuen, baina disko-etxe baten babesarekin kaleratu dugu eta atzeratu egin zaigu. Orain garai txarra da promozioa egiteko eta irailetik aurrera hasiko gara berriz diskoa zabaltzen.

Zer moduzko harrera izan du diskoak?

Zenbait komunikabidetan tartea egin digute, baina momentuz ez zaizkigu kontzertu asko atera. Hala ere, oraingoz jaso ditugun kritikak oso onak izan dira. Musika berezia da, Euskal Herrian ez da oso ohikoa, korrontearen kontra egindako disko bat da. Toki txikietan, herri taberna nahiz kultur etxeetan esaterako, jendea lasai entzutera doan lekuetan oso ongi funtzionatu du. Baina proiektu honek arrakasta lortzeko denbora beharko du. Orain Arrasatetik deitu gaituzte terraza batean jotzeko eta hori da gure tokia, ez da eszenatoki handietarako proiektua.

bestea talde osoarekin. Baina, azken finean sortzen dituzun abesti horietatik guztietatik ez da nahi duzuna grabatzen baizik eta ahal duzuna.

“Gai graziosoak eta latzak tartekatu ditut”

Beharbada bai, beharbada ez da diskoaren izena, zergaitik?

Diskoko abesti baten izena da, nolabait teko kritika soziala egiten duena. Azala kontzeptualizatzeko ere lagungarria zitzaidan. Margarita bati hostoak kenduz, “beharbada bai, beharbada ez...”

Eta proiektuaren izena, Zamarra eta Aterkia, nondik dator?

Zamar deitzen didate lagunek, baina proiektu hau talde lan bat da, musikariengatik interpretatua izatea behar du. Hasieran, Zamar eta aterkia nuen buruan, aterkiak taldea irudikatzen du, nire abestiak izan arren, taldearengatik babestua nagoelako, ez nago bakarrik. Aterkiarekin zamarra erabili ohi dugu eta linguistikoki ere egokiagoa iruditu zitzaidan zamarra jartzea.

Bigarren diskoa dagoeneko buruan?

Bai. Niri asko gustatzen zait idaztea eta ariketa gisa konposatzen ditut abestiak. Lan honen ondotik beste bi ditut buruan, bat gitarrarekin osatzeko eta



Diskoa 10 eurotan salgai:

Beteluko ostatuan, Lanbroan eta Kantinan.

Online eskuratzeko aukera: Gaztelupeko Hotsak, Spotify eta Amazon atarietan.

Informazio gehiago:

www.facebook.com/Zamarra-eta-Aterkia

zamarraetaaterkia.bandcamp.com/

Taldearen bideoklipa hemen ikusgai:

<https://www.youtube.com/watch?v=MSqcn7DaOC4>



Sanpedroak, ohi baino hotzagoak aurten



Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitarte San Pedro jaiak ospatu zituzten Betelun. Festak udako tenperatura goxoekin ospatzera zeuden ohiturik, baina aurten bereziki egun hotzak eta euritsuak izan ziren. Aurreikusitako ekitaldiekin aurrera jarraitu ahal izateko ostiralean karpa bat jarri behar izan zuten plazan.

Umeen pilota partidak, puzgarriak, herri-kirolak eta dantzaldiak izan ziren besteak beste. Urteroko patata tortilla lehiaketa ere egin zuten. Aurten bost herritarrek aurkeztu zuten euren



patata tortilla eta Maria Jesus Peredarena izan zen epaileen arabera onena. Oderizko Juanluzenea sagardotegiak eskainitako sagardo dastaketarekin eta Egan taldearekin dantzan eman zieten amaiera jaiari.

Mugiron berriz, lau eguneko festak izan zituzten eta han ere, barrikoteaz gain, etxez etxeko erronda, pilota partiduak, mus txapelketa eta dantzaldiez gozatu zuten.

Horra hor aurtengo sanpedroetan jasotako zenbait irudi!



Hostal Betelu



Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak



Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com



Alvaro Ramosek eta Irene Guembek irabazi dute EHM Eren bosgarren lasterketa

Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartzen zuen hirugarren aldia zuen, iaz zortzi ordu eta hamabost minututan helmugaratu zen eta bere aurtengo erronka zortzi ordutik behera egitea zen. Erronka lortzeaz gainera, lehenengo postuan sailkatu zen 6 ordu, 56 minutu eta 14 segundorekin.

Salamancarrarekin batera lasterketan zehar lehen postuetan ibili ziren, Iban Muñoz (7:00:17), Unai Santamaria (7:07:07) eta Jose Luis Beraza (07:08:16). Beraza Lekunberrira iritsi arte denbora luzez aritu zen lasterketaren buruan. Kilometro bertikala igotzen lehena izan zen eta 54 minutu eta 37 segundoko denborarekin Gaintza eta Irumugarrieta arteko proban azkarrena izan zen, baina gero atzean gelditzen joan zen.

Emakumeetan, Zizur Nagusiko Irene Guembek irabazi zuen lasterketa 8 ordu, 30 minutu eta 8 segundorekin. Monica Grajerak iritsi zen bigarren (8:51:24) eta Amaia Otxoa de Alda hirugarren (9:40:02).

Aurtengoan, Juan Mari Feliú mendizalea omendu zuten egindako ibilbideagatik eta Euskal Herriarekiko erakutsitako konpromisoagatik. Goizeko zortzietan irten ziren korrikalariak ikaragarriko euri zaparradaren azpian. 67 kilometro egin behar izan zituzten behe laino, lokatz eta euri artean. Hasiera batean izen emandako korrikalarietatik 633k parte hartu zuten eta horietatik 524 korrikalariak lortu zuten helmugara iristea, tartean 18 emakumezko.

Irabazleek txapela, trofeoa, 600 euro eta bertako produktuekin osatutako saskia jaso zuten opari. Bigarren postuan sailkatutakoentzat 400 euro eta hirugarren egindakoentzat 200 euro.

Antolatzaileak beste behin pozik daude aurtengo lasterketak emandakoarekin. 450 inguru aritu ziren boluntario lanetan eta ehunka pertsona joan ziren lasterketako hainbat lekutara korrikalarietako animoak ematera.

Eskualdeko korrikalarietako dagokienez aurreko hamar korrikalarietako lortu zuten Leitzara iristea, iaz baino hiru gutxiagok. Horra hor bertako korrikalarien denborak.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Asteleheneetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Eskualdeko korrikalarien sailkapena:

Alfontso Etxarri Azpirotz (Arruiz)	08:34:52
Mikel De Carlos Gorria (Lekunberri)	08:54:45
Iñaki Alvarez Del Rio (Betelu)	09:10:34
Ruben Gonzalez Otxotorena (Lekunberri)	09:49:54
Xabier Igoa Garro (Aldatz)	09:58:46
Luis Mari Larreta (Aldatz)	10:26:50
Josu Oreja Arratibel (Errazkin)	10:43:13
Kiko Eskamendi Iriarte (Betelu)	10:43:17
Andoni Otxotorena Erro (Lekunberri)	10:50:45
Imanol Jaka Navarro (Etxarri)	11:52:49




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADI!! TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Ikasturte amaiera pilota eskolan

Larraungo Pilota Elkartek antolatutako Udaberriko Txapelketako finalak jokatu zituzten San Joan bezpera egunean. Lau partidu izan ziren: Palan, Garazi Soroa eta Maddi Galarzak irabazi zuten Uxue Etxarri eta Mainer Saralegiren aurka. Alebinetan, Xabier Lasa eta Aimar Otamendik Luken Soroa eta Endika Galarzaren kontra. Infantiletan, Hodei Ijurko eta Julen Ezkurdiak lortu zuten finala irabaztea Xabier Arrieta eta Intza Garañoren aurka izandako partiduan eta kadeteetan, Iñaki Galarzak eta Aritz Irastor-tzak irabazi zieten Oinatz Iriarte eta Asier Domeñori.

Hurrengo egunean, Lekunberriko frontoian prebenjaminiek eta benjaminiek ikasturteko azken jardunaldia izan zuten.



2017ko lasterketak aurkeztu ditu Plazaolak

Irailaren 17an izanen da Plazaolako Bide Berdearen II. Maratoia eta XI. Maratoi Erdia. Joan den hilean bi proba horien antolatzaileak eta babesleak aurkezpen ekitaldia egin zuten. Bertan izan ziren, Primitivo Sanchez (Nafarroako Kirolaren Institutuko Kirol zuzendariordea), Natalia Azcona (Lekunberriko Alkatea eta Plazaolako Patzuego Turistikoko Lehendakaria), Eneko Andueza (Leitzako Kirol zinegotzia), Jon Zulueta (Andoaingo Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteriako zinegotzi delegatua), Miren Juantorena (Leitzako Anikote Kirol Zerbitzuko arduraduna), Jon Ander Unanua (Kirolmankeko gerentea), Ainhoa Amundarain (Donostialdea Turismo koordinatzailea) eta Gustavo Ortiz de Barrón (Plazaolako Partzuego Turistikoko Gerentea).

Maratoia 42 kilometrokoa izanen da, Lekunberri hasi eta Andoainen amaituko da eta maratoi erdia Leitzatik Andoainera, 26 kilometroko ibilbidea. Abuztuaren 18ra arte izanen da probetan izen emateko epea, baina irailaren 12ra arte ere beste epe bat irekiko dute prezio altuagoarekin.

Antolatzaileek iazko 435 pertsonako parte-hartzea gainditzea espero dute. "Entitate sustatzaileen eskutik, inguruko establezimendu turistikoekin elkarlanean, bertako ingurunearen promozioa eta ezagutza bultzatuko da".

Eman izena www.maratonviasverdes.com atarian.

Ibilbide berria estreinatu dute XV. Aralarko Ibilaldian

Ekainaren 11n izan zen Ttuturre Mendi Elkartek antolatutako mendi martxa. Hamabosgarren edizioa izan zen aurten goa eta ibilbide berritua proposatu zieten mendizaleei. 33,4 kilometroko buelta, Lekunberri hasi, Ttuturrera igo, handik Belokira, gero Artxueta eta berriz ere Lekunberri. Tartean bi anoa postu izan zituzten gelditu eta indarberritzeko. Horra hor zenbait irudi!



Barrenak garbi mantenduz

Kaixo lagunok,

Badator udara, beroa, eta horrekin batera oporrak, igerilekuak, eguzkia... Eta gauza freskoak nahi izaten ditugu. Normalean, izozkiak, irabiatu eta freskagarri freskoak. Baina gehienetan hauek ez dira batera osasuntsuak izaten. Beraz, gaurkoan fruta freskagarri batzuen ezaugarriak azalduko dizkizuet eta baita aurtengo udan egin ditzakezuen irabiatu batzuen errezetak ere.

MELOIA

Fruta gozo honen %90 ura da, beraz oso ongi etorriko zaigu udako egun beroetarako, oso freskagarria baita. A bitamina du eta baita E bitamina ere (azken hau antioxidatzailea da).

SANDIA

Meloiaren antzera, fruta honek ere ur kantitate handia du. Magnesioan eta potasioan aberatsa da eta tentsio altua, likido-erretentzioa edota azido uriko altua duten pertsonentzat oso onuragarria da. Gainera, gure gorputza garbitzen laguntzen digu.

SAGARRA

Fruta guztietan garrantzitsuenetako bat da bere propietateengatik. Gibelak eta giltzurrunak osasuntsu eta garbi mantentzen laguntzen du, baita kolesterola jaisten eta digestioan ere. Zuntz asko du. (ONGI GARBITU ETA AZALAREN KIN JAN!)



ANANA (PIÑA)

Fruta honek ere ur kantitate esanguratsua eskaintzen digu. Gainera, propietate diuretikoak (likidoak kanporatu) eta gorputza garbitzen laguntzen digu. C, B1, B6, B9 bitaminetan aberatsa da, baita kaltzio, magnesio eta potasioan ere. Bestalde, digestioan laguntzen du bromelina izeneko entzima bat duelako.

MELOKOTOIA (MUXIKA)

Fruta hau oso antioxidatzailea da. Azalera bikain doan fruta da eta bere A bitamina kantitateengatik egokia da begiak, azala eta digestio aparatua zaintzeko. C bitamina eta selenioa dauzka.

Hurrengo atalean gehiago. Zaindu birtartean eta osasuntsu elikatu!!!!

Harremanetarako:

608 32 19 05 / neresotil@gmail.com
Kontsultak: San Anton kalea, 12 (Iruña),
La ventana natural belardendan.

Hona hemen irabiatu batzuen errezetak:

1-Gosari baterako egokia.

Sagar bat (hobe berdea bada).

Platano bat.

200ml arrozaren esnea edota almindrena.

Kakao beltza (%100 hautsean)

Kanela pixkat nahi bada.

*Fruitu lehor batzuk jarriz gero gosari bete-betea.

2-Honako irabiatu hau, goiz erdian, bazkaldu baino lehen, hartzeko egokia da:

Anana (Piña), zati bat (100-150g).

Limoi baten zukua.

Pepino zati bat, nahi bada.

Dena irabiatu eta barrenera. Esan bezala, ananak (piñak) digestioan lagunduko digu eta bazkal aurretik interesgarria izan daiteke.

3: Arratsaldean honako hau hartu daiteke:

Sandia zati bat.

Meloi zati bat.

Dena irabiatu eta edateko.

Bi fruta hauek ur kantitate handia dute eta hidratatuta mantenduko zaituzte, igerilekuan zaudela eta baita kirola egiten baduzu ere.

>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!

- 30 -

Aurreko alean kaleratutako argazkian...
Ezkerretik eskuinera:

Olaia Soroa, Noelia Torres, Estitxu
Torres, Aner Ansorena, Maddi Soroa eta
Amets Soroa, Lekunberriko frontoian,
festetan egin ohi zen mozorro festan.



Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo
638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren
kontrako
plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

uztaila

8 Udako zinea 22:00etan, Lekunberrin: "Un monstruo viene a verme"

21 Baga Biga txotxongilo konpainiaren "ESPERANTXI, ITXAROPENA LOREA" ikuskizuna, 20:00etan, Lekunberriko herriko plazan.

25 Udako zinea 22:00etan, Lekunberrin: "La La Land"

28 Soul Meeting taldearen kontzertua 20:00etan, Lekunberrin, herriko plazan.

abuztua

1 Udako zinea 22:00etan, Lekunberrin: "Animales fantásticos y dónde encontrarlos".

6 Antzinako Azoka Lekunberrin.

8 Udako zinea 22:00etan, Lekunberrin: "¡Canta!"

15 Nekazal Azoka Lekunberrin.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Lekunberrin 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...). Argazki eta informazio gehiagorako jarri zaitez harremanetan: 630 041 480.

BESTERIK

- Pianoa jotzen hasi nahi baduzu, nire etxean, Lekunberrin, klaseak eskaintzen ditut. Anima zaitez eta deitu 636 390 356 telefono zenbakira. (Luci).



ARAXES GARAIBO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Uztailak 26, asteazkena, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da. Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olio biltzeko dagoen ontziaren ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



ARRIBEKO JAIK 2017

UZTAILAK 14, ostirala

19:33 Arribe - Gorriti marka hausteko saiakera.
20:13 Festei hasiera emateko TXUPINAZOA.
21:30 Herri afaria.
00:30 LAIOTZ taldea.
04:00 DJ ELORRI eta txupito festa.

UZTAILAK 15, larunbata

12:00 PUSKABILTZA.
Arratsaldean plazan: BORDETXE ABERE ZIRKOA.
Ondoren dantzaldia ZESUMA taldearekin.
01:00 erromeria ZESUMA taldearekin.
Amaitzean, musika txoznan eta DJ ELORRI goizaldera arte.

UZTAILAK 16, igandea

09:00 Goiz soinua.
12:00 Meza santua.
12:30 XVII. PATATA TORTILA lehiaketa. Ondoren hamaiketako!
17:30 PILOTA PARTIDUAK frontoian.
Segidan KAÑAMARES - SARALEGI aizkolariak eta JOSETXO URRUTIA harri-jasotzailea plazan.
20:00 TRIKITILARIAK.

UZTAILAK 17, astelehena:

11:00 PUSKABILTZA txistulariez alaiturik.
21:30 Herri afaria.
Ondoren INGURUTXOA eta festei amaiera emateko dantzaldia DJ TXOKOrekin.

ASKAATEKO FESTAK

Ostiela, uztailak 7

-11etan, erromeria San Fermin ermitara eta meza.
-12:30ean, Aitor Mendiluze eta Unai Agirre bertsolariak herriko plazan.
-Ondoren, abilezia jolasak eta Estangatarrak trikitilarien emanaldia.
-14:30ak aldera bertso bazkaria
-18:00etan gaztetxoan arteko pilota partiduak, eta gero bertso pilota Argintxe anaiekin.
-Ondoren, trikitilarien bigarren saioa.
-21:30ean, afari autogestionatua. Animatu eta parte hartu!
-24:00etan, Oixani Dj-a.

Launbata, uztailak 8

-12:00etan, ume jolasak.
-Ondoren, puskabiltza trikitilarekin herriko plazatik abiatuta.
-21:30ean, herri afaria (Txartelak Surtidorean eta Betelun salgai).
-24:00etan, Fan&Go taldea.

Igandea, uztailak 9

-11:30etik aurrera, herriko argazki zahar eta bitxien erakusketa.
Bertako produktu eta artisauen azoka eta taloak.
-18:00etan, artzain txakur erakustaldia.
-19:30ean, patata tortilla eta postre lehiaketa.
-Ondoren, sagardo dastaketa, eta erromeria Astiazaran II eta An-donegi trikitilarekin.

AZPIROZKO FESTAK 2017

Abuztuak 3 osteguna

12.00 Meza.
13.30 Herri bazkaria.

Abuztuak 4 ostirala

18.30 Tailerrak.
20.00 Zinea plazan.

Abuztuak 5 larunbata

10.00 Erronda.

16.00 Ginkana.
17.00 Mus txapelketa.
Frontenis txapelketa
Haurrentzako tailerrak
20.00 Musika.
22.00 Afaria.
00.30 DJ Bull.

Abuztuak 6 igandea

17.00 Herri-kirolak eta jolasak, ondoren, txokolatea.
20.00 Musika eta festen amaiera.

ERRAZKINGO JAIK

ABUZTUAK 3, osteguna

17:30 Jaien hasiera suziriarekin.
18:00 Puzkabiltza.

ABUZTUAK 4, ostirala

11:00 Puskabiltza.
18:00 Ume-jokoak.
22:00 Kuadrilla aparria.
00:30 Dantzaldia GABEZIN taldearekin.

ABUZTUAK 5, larunbata

14:00 Zikiro jatea. Ondoren, dantzaldia AITORrekin
18:00 Mus txapelketa.
01:00 Dantzaldia ZESUMA taldearekin.

ABUZTUAK 6, igandea

09:00 Dianak txistulariekin.
11:30 Umeen arteko pilota partiduak.
12:30 Helduen arteko pilota partiduak.
18:00 Herri-kirolak (Errazkin Beteluren kontra).
20:00 Barrikotea eta dantzaldia Joxe ANGELekin.

GORRITIKO PESTAK 2017

ABUZTUK 24

11:00tan Pestei hasiera.
11:00tan Meza.
12:00tan Larraungo pilota eskolako neska-mutil gaztetxoan partiduk.
14:00tan Herri bazkaria, eta ondoren AGERRALDE soinu-jolearekin dantzaldie.

ABUZTUK 25

10:00tan Puxke biltze Gari eta Iñaki trikitilariakin.
21:00tan Herri aparie autogestionatue nahi duenarentzat, irekie.
23:00tan DJ JOTATXO.

ABUZTUK 26

11:30ean Ume-jokuk.
18:30ean Zumba, parte hartu!!
20:00tan Apalurreko dantzaldie XARMA taldekin.
21:00tan Herri-aparie.
23:30ean XARMA taldekin dantzaldie.

ABUZTUK 27

12:00tan TRONTZALARIK Euskal Herriko txapelketako kanporaketa eta AIZKOLARIEN erakustaldei.
18:00tan Bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia.
19:30ean Pintxok sagardo eta ardoarekin, Uitziar trikitilarekin alaitue.

LEZAETAKO JAIK 2017

ABUZTUAK 19

11:00etan Jaien hasiera ezkil-jotzearekin.
11:30etan Ur jolasak haurrentzat.
17:30etan Pituxa Clowntu Kontari antzezlan haur eta helduentzat herriko plazan.
19:30etan Kontzertua: Plan B, Donostia aldetik. Herriko plazan.
21:00etan Akanpada gaupasa.